HERRIZAINGO SAILA

6623

AGINDUA, 2008ko azaroaren 6koa, Herrizaingo sailburuarena, 2008-2009 ikasturtean Ertzaintzako funtzionarioek laneko ordutegitik kanpo euskara ikasteko Autoikaskuntzako ikastaroaren prezio publikoa finkatzen duena.

Irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuko 23. artikuluak ematen dizkidan ahalmenez baliatuz -Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko maiatzaren 29ko 13/1998 Legearen testu bategina onartu zen- dekretu horren bidez-, prezio publikoen bidez ordain daitezkeen ondasunak, zerbitzuak eta jardunak finkatzeari buruzko uztailaren 21eko 161/1998 Dekretuak ezarritakoarekin bat etorriz eta Ogasun eta Herri Administrazio Saileko organo eskudunek dagokion espedientearen aldeko txostena eman dutela, hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Euskara ikasteko autoikaskuntza ikastaroan matrikulatzeko prezio publikoa.

Lan-ordutegitik kanpo I. hizkuntza-eskakizuna prestatzeko Ertzaintzako funtzionarioei zuzendutako autoikaskuntzako euskara-ikastaroaren prezio publikoa 260 eurokoa izango da, 2008-2009 ikasturte osorako.

2. artikulua.– Ordaintzeko era eta epea.

Prezio publikoaren zenbateko hori esku-dirutan ordainduko da, finantza-erakunde baten bidez eta ikastaroko matrikula egiteko momentuan, Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina onartu zuen irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren 21. artikuluarekin bat etorriaz.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 6a.

Herrizaingo sailburua,
JAVIER BALZA AGUILERA.

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

6623

ORDEN de 6 de noviembre de 2008, del Consejero de Interior, por la que se fija el precio público del Curso de Autoaprendizaje de euskera fuera del horario laboral dirigido a los funcionarios y funcionarias de la Ertzaintza en el curso académico 2008-2009.

En virtud de las facultades que me confiere el artículo 23 del Decreto Legislativo 1/2007, de 11 de septiembre, de aprobación del Texto Refundido de la Ley 13/1998, de 29 de mayo, de Tasas y Precios Públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y de acuerdo con el Decreto 161/1998, de 21 de julio, por el que se determinan los bienes, servicios y actividades susceptibles de ser retribuidos mediante precios públicos en la Comunidad Autónoma del País Vasco, habiéndose informado favorablemente el expediente correspondiente por los Órganos competentes del Departamento de Hacienda y Administración Pública,

DISPONGO:

Artículo 1.– Precio público de matriculación en curso de autoaprendizaje de euskera.

El precio público de matriculación en curso académico completo 2008-2009 de autoaprendizaje de euskera correspondiente al perfil lingüístico I dirigido a funcionarios y funcionarias de la Ertzaintza, para su realización fuera del horario laboral, será de 260 euros.

Artículo 2.– Forma de pago y plazo.

El pago del importe del precio público se realizará en efectivo, conforme al artículo 21 del Decreto Legislativo 1/2007, de 11 de septiembre, de aprobación del Texto Refundido de la Ley de Tasas y Precios Públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, mediante la intermediación de entidad financiera y en el momento de la matriculación para la realización del curso.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de noviembre de 2008.

El Consejero de Interior,
JAVIER BALZA AGUILERA.